BIZKAIA ENPRESA
BILERA•ENCUENTRO
2020

# Beaz 2020 Bizkaia

Ekosistema kolaboratiboak
Ecosistemas colaborativos



# Ekosistema kolaboratiboak
# Ecosistemas colaborativos

**Lankidetzak aukera ematen du bizirik jarraitzeko, abiadura handiagoan eta hutsetik abiatu gabe hazteko, gure DNAn ez dauden jarduerak gauzatzeko, ordura arte zailak edo, areago, jorratu ezinak ziruditen arazoei aurre egiteko eta lehiakortasunean irabazteko.**

---

Colaborar permite seguir vivo, crecer a mayor velocidad y sin partir de cero, ejecutar actividades que no están en nuestro ADN, afrontar problemas que hasta entonces parecían difíciles o, incluso, inabordables, y ganar en competitividad.

Azken urteotan, Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldeko enpresak sortzen eta sendotzen laguntzeko ekosistema bat indartu nahian lan egin du.

Aldizka, ETEak eta pertsona ekintzaileak beren garapen-etapetan sostengatzeko pentsatutako tresnak eta zerbitzuak sortu ditu. Hazkunde-erronkei aurre egiteko jarraitu ahal izango lituzketen ibilbide espezifikoak.

Dinamika horien eragina hobetzeko moduari buruzko galdera errepikariari beste hau gehitu behar zaio: sistema berri baterantz trantsizio-une batean gaude, eta horrek ekonomia- eta antolaketa-eredu desberdinak dakartza. Estrategia tradizionalei erronka egiten dieten ereduak.

Enpresei laguntzeko foru-formulek izaten jarraitzen duten arrakasta alde batera utzita, haien erabilera nola optimizatu pentsatu behar da.

Hausnarketa horretatik hainbat ziurtasun ondorioztatzen dira. Horietako bat da enpresek jada ez dutela konponbiderik behar, arazo bati aurre egiteko aukerak baizik, erakundeek oso modu desberdinean jarduten dutela testuinguruaren arabera, eta lankidetzan aritzeak beren gaitasunak eta erresilientzia areagotzen dituela.

Gaur egun ez dago enpresaren profil estereotipaturik, eta horrek funtzio berriak planteatzera garamatza. Sortu dugun laguntzen eta zerbitzuen mapak zentzua izaten hasi dira beste ikuspuntu batzuetatik. Nola lortu gure politikek erakunde onuradunetan duten eragin indibidual eta puntualetik haratago joatea? Nola sustatu baliabide horien konbinazio sortzailea?

Erantzun posible asko egongo dira, baina horietako bat argia dela ematen du: lankidetzako ekosistema bat sortzen lagundu behar da, enpresek eta proiektuek bat egin dezaten. Sistema horren erronka ez da arazo zehatzei irtenbideak ematea, baizik eta harreman berriak eta lankidetzarako modu berriak bultzatzea, berrikuntzarako gaitasuna hobetzeko.

En los últimos años, la Diputación Foral de Bizkaia ha trabajado en el fortalecimiento de un ecosistema de apoyo a la creación y consolidación de empresas del territorio.

Regularmente ha generado herramientas y servicios pensados para sustentar a las pymes y personas emprendedoras en las diferentes etapas de su desarrollo. Itinerarios específicos que pudiesen seguir para abordar sus retos de crecimiento.

A la pregunta recurrente de cómo mejorar el impacto de esas dinámicas se une la evidencia de que estamos en un momento de transición hacia un nuevo sistema que conlleva modelos económicos y organizativos diferentes. Modelos que desafían las estrategias tradicionales.

Al margen del éxito que las fórmulas forales de apoyo a empresas siguen teniendo, es preciso pensar en cómo optimizar su uso.

De esa reflexión se desprenden varias certezas. Una de ellas es que las empresas ya no necesitan soluciones sino opciones para abordar un problema; que las organizaciones actúan de forma muy distinta según el contexto, y que colaborar aumenta sus capacidades y resiliencia.

Hoy no hay perfiles estereotipados de empresa lo cual nos lleva a plantearnos nuevas funciones. El mapa de ayudas y servicios que hemos generado empieza a tener sentido desde otros puntos de vista. ¿Cómo lograr que nuestras políticas vayan más allá de la incidencia individual y puntual en las organizaciones beneficiarias? ¿Cómo promover la combinación creativa de esos mismos recursos?

Habrá muchas respuestas posibles, pero una de ellas parece clara: contribuyendo a crear un ecosistema colaborativo que propicie que empresas y proyectos converjan. Un sistema cuyo reto no sea ofrecer soluciones a problemas concretos, sino impulsar nuevas relaciones y formas de colaboración que mejoren la capacidad de innovación.



Lankidetzak aukera ematen du (galdetu diegun enpresetako batzuek esan duten bezala) “bizirik jarraitzeko”, “abiadura handiagoan eta hutsetik abiatu gabe hazteko”, “gure DNAn ez dauden jarduerak gauzatzeko”, “ordura arte zailak edo, areago, jorratu ezinak zirudien arazoei aurre egiteko”, “lehiakortasunean irabazteko”.

Adibide ona eta oso gertukoa da orrialde hauetan Jon Landeta, Imanol Basterretxea eta Jon Charterina EHUko Enpresari Aplikatutako Ekonomia Institutuko irakasleek hurbiltzen digutena. Makina-erremintaren sektoreko euskal enpresa txiki eta ertainen arteko lankidetzari buruzko ikerketak kontzeptu berri bat azaltzeko balio die: lehiakideekiko lankidetza. Bestearen motibazioen eta gaitasunen osagarritasuna aitortzea.

Praktika eta prozedura berrien esperimentazioarekin batera, baina prozesu osagarrien loturaren ideiarekin bat eginez, Ekonomia Sustatzeko Foru Sailak enpresei proposatzen die Beaz, Bizkaia Talent eta Seed Capital Bizkaiaren bidez eskaintzen dituen tresnak konbinatzea.

Startupek, ETEek eta, batzuetan, korporazioek edo ezagutza sortzeko zentroek eskura dituzten laguntzen eta zerbitzuen irakurketa egokitu dezaketela, beren ibilbidea osatu arte, beren beharretara ahalik eta ondoen egokituz.

Baliabideen konbinazioaren ondorioz, laguntza-tresnek eragin handiagoa dute, enpresen profil anitzagoetarako erabilgarriak dira eta enpresa horiek beren erronkei aurre egiteko modua birformulatzen dute. Egia da formula berri horrek nolabaiteko konplexutasuna dakarrela hasieran, baina konplexutasun aberasgarria da.

Colaborar permite –como dicen algunas de las empresas a las que hemos preguntado– “seguir vivo”, “crecer a mayor velocidad y sin partir de cero”, “ejecutar actividades que no están en nuestro ADN”, “afrontar problemas que hasta entonces parecían difíciles o, incluso, inabordables”, “ganar en competitividad”.

Un buen ejemplo y muy próximo es el que nos acercan en estas páginas Jon Landeta, Imanol Basterretxea y Jon Charterina, profesores del Instituto de Economía Aplicada a la Empresa de la UPV/EHU. Su investigación sobre la cooperación entre pymes vascas del sector de la Máquina-Herramienta les sirve para explicar un nuevo concepto, el de la ‘coopetencia’: la colaboración con competidores. El reconocimiento de la complementariedad de las motivaciones y capacidades del otro.

En paralelo a la experimentación de nuevas prácticas y procedimientos, pero en sintonía con la idea de la conexión de procesos complementarios, el Departamento foral de Promoción Económica propone a las empresas que combinen las herramientas que ofrece a través de Beaz, Bizkaia Talent y Seed Capital Bizkaia.

Que startups, pymes e incluso, en algunas ocasiones, *corporates* o centros de generación de conocimiento, puedan adaptar la lectura de las ayudas y servicios que tienen a su alcance hasta componer su propio itinerario, aquel que mejor se ajusta a sus necesidades.

La combinación de recursos hace que las herramientas de apoyo tengan mayor impacto, que resulten útiles a perfiles más diversos de empresas y que éstas se reformulen la manera de afrontar sus retos. Es cierto que esta nueva fórmula implica cierta complejidad inicial, pero es una complejidad enriquecedora.



Bizkaia lurralde lehiakorra izan dadila, berrikuntza eta lankidetza beren-beregi jorratuko dituzten enpresak dituena. Hori da, hain zuzen ere, Ainara Basurko Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak legealdi berrirako ezarri duen erronketako bat. Sail berria da hau, eta ardatz estrategiko berriak ditu: ekintzailetza, berrikuntza, kanpo-lotura, talentua eta lurralde-oreka.

Un territorio competitivo con empresas abiertas a la innovación y a la colaboración. Es uno de los retos que se marca la diputada foral de Promoción Económica, Ainara Basurko, para la nueva legislatura. Un nuevo departamento con nuevos ejes estratégicos: emprendimiento, innovación, conexión exterior, talento y equilibrio territorial.

**Ainara Basurko**

Ekonomia Sustatzeko sailaren foru diputatua
Diputada foral de Promoción Económica

## "Gure indarguneen inguruan elkarlanean jarduten jarraitu behar dugu, Bizkaia eta bertako enpresak lehiakortasunaren bidean mantentze aldera"

## "Debemos seguir colaborando sobre nuestras fortalezas, para mantener a Bizkaia y sus empresas en la senda de la competitividad"

**Duela hilabete batzuk legealdi berria abiatu zen; zeintzuk dira Ekonomia Sustatzeko Sailaren lehentasunak?**

Gure lehentasuna beti izan behar da jarduera ekonomikoa eta kalitatezko enplegua sortzen laguntzea. Eta, horretarako, garrantzitsua da enpresekin, sektoreko eragileekin eta ekintzailetzako eta berrikuntzako ekosistemako gainerako eragileekin bide eta bitarteko irekiak izatea; jakin egin behar dugu enpresek zer erronka eta zailtasuni aurre egin behar dieten, sustapen-politika hobeak taxutu ahal izateko.

**Enpresa-sustapena eta berrikuntza dira 2020ko ekitaldian Sailaren aurrekontuaren zatirik handiena eroaten dutenak. Zertan islatzen da hori?**

Sailaren aurrekontua %3,5 hazi da, 78.458.000 eurora arte. Eta inbertsio bakoitza legealdiko ardatz estrategikoekin lotu dugu; ondoko hauek dira ardatzok: ekintzailetza, berrikuntza, kanpo-lotura, eskualdeko garapena eta talentua.

Enpresak sustatzeko ekimenak eta programak guztirako zenbatekoaren % 48,5 dira. Proiektu handien aldeko apustu sendoa egiten dugu; proiektu horietako batzuk, besteak beste, Ezkerraldeko parke teknologikoa eta Nazioarteko Ekintzailetza Zentroa dira. Eta, horiez gain, 25 milioi eurorekin indartu ditugu enpresen berrikuntza eta lehiakortasuna sustatzeko programak.

**Zer helburu ezarri dira legegintzaldiaren lehenengo denbora-tarte honetarako?**

Errealismoa eta anbizioa uztartzen jakin behar da. Egoera orokorra zalantzazkoa da, baina Bizkaian egoera egonkorra eta fidagarria dugu. Elkarlana da gure armarik onena. Gure indarguneen gainean elkarlanean jarraitu behar dugu, Bizkaia eta bertako enpresak lehiakortasunaren bidean mantentze aldera. Eta erakundeen artean elkarlanean aritzen ikasi behar dugu, hazteko eta aukera berriak sortzeko xedez.

**Helduta al gaude lehiatzetik lankidetzarako urratsa emateko? Nola susta ditzake horrelako praktikak administrazio batek?**

Gaur egun badaude enpresen arteko lankidetza sustatzen duten programak, berritzeko eta erronka berriak bere gain hartzeko, zeren eta, sarri askotan, erronka horietara enpresa bakar bat ezin iritsi izaten baita. Berbarako, Foru Aldundiaren 'Elkarlanean' da programa horietako bat. Hain justu ere, urte gutxi batzuk daramatzagu startup eta enpresa bultzatzaileekin berrikuntza irekiari dagozkion dinamiken arloan elkarlanean, eta lankidetza estrategikoak bultzatzen dituzten tresna fiskalak ere sortzen, hala nola Sozietateen gaineko Zergaren 64 bis artikulua, edo AIC edo CFAA bezalako lankidetza-berrikuntzaren alorreko proiektuak bultzatzen. Uste dut oraindik bide luzea dugula lankidetzarako ekosistemen eretzean aurrera egiteko, baina aurrera goaz. Mundua ikusteko eta enpresa bakoitza kudeatzeko beste jokaera bat behar da, modu irekiagoan jardunez. Digitalizazioak eta beste trantsizio global batzuek, hala nola ingurumeneko

**Hace unos meses arrancaba una nueva legislatura, ¿cuáles son las prioridades del departamento de Promoción Económica?**

Nuestra prioridad debe ser siempre favorecer la generación de actividad económica y la creación de empleo de calidad. Y para eso es importante mantener canales abiertos con empresas, agentes sectoriales y demás agentes del ecosistema de emprendimiento e innovación; debemos conocer cuáles son los retos y dificultades que afrontan para poder diseñar mejores políticas de promoción.

**Promoción empresarial e innovación se llevan el grueso del presupuesto del departamento este ejercicio 2020. ¿En qué se traduce?**

El presupuesto del departamento ha crecido un 3,5% hasta los 78.458.000 euros. Y hemos ligado cada inversión a los ejes estratégicos de la legislatura: emprendimiento, innovación, conexión exterior, desarrollo comarcal y talento.

Las iniciativas y programas de promoción empresarial suponen un 48,5% del total. Apostamos fuerte por grandes proyectos como el parque tecnológico de Ezkerraldea/Meatzaldea y el Centro Internacional de Emprendimiento. Y reforzamos con 25 millones de euros los programas para promover la innovación y competitividad de las empresas.

**¿Qué objetivos se han marcado para este primer tramo de legislatura?**

Hay que saber conjugar realismo y ambición. La situación global es de incertidumbre, pero en Bizkaia contamos con un escenario estable y fiable. La colaboración es nuestra mejor arma. Debemos seguir colaborando sobre nuestras fortalezas para mantener a Bizkaia y sus empresas en la senda de la competitividad. Y debemos aprender a cooperar entre organizaciones para crecer y crear nuevas oportunidades.

**¿Estamos maduros para dar el paso de competir a colaborar? ¿Cómo puede una administración fomentar este tipo de prácticas?**

Ya hay programas que incentivan la colaboración entre empresas para innovar y asumir nuevos retos a los que una sola no puede llegar, como el programa foral Elkarlanean. Y llevamos ya unos pocos años trabajando en dinámicas de innovación abierta con startups y empresas tractoras y generando también herramientas fiscales que propician colaboraciones estratégicas como el artículo 64 bis del Impuesto de Sociedades o impulsando proyectos de innovación colaborativos como el AIC o el CFAA. Creo que nos queda aún camino por recorrer en el ámbito de los ecosistemas colaborativos, pero vamos avanzando. Se necesita otra forma de ver el mundo y de gestionar cada empresa, de una manera más abierta. La digitalización y otras transiciones globales como la energético medioambiental o demográfica nos están transformando como sociedad y hay nuevos enfoques que pueden aplicarse también a los sistemas de gestión internos y a las relaciones entre empresas para abordar nuevas oportunidades que propician la generación de actividad económica y empleo.

**Ainara Basurko**

Ekonomia Sustatzeko sailaren foru diputatua
Diputada foral de Promoción Económica

# Koopetizioa eta berrikuntza
# Coopetición e Innovación

Termino berria nagusitzen ari da enpresa-hizkeran. Koopetizioa: lehiatzen diren eta, aldi berean, proiektuak partekatzen dituzten erakundeen arteko lankidetza. Gai horri buruz, eta, zehatzago, makina-erremintaren sektoreko euskal enpresa txiki eta ertainen arteko koopetizazioari buruz, gogoeta egin dute Imanol Basterretxeak, Jon Charterinak eta Jon Landetak, EHUko Enpresari Aplikatutako Ekonomia Institutuko irakasleek.

Un nuevo término se impone en el lenguaje empresarial. La coopetición: la colaboración entre organizaciones que compiten y, a la vez, comparten proyectos. Sobre este tema, y más en concreto sobre la coopetición entre pymes vascas del sector de la Máquina-Herramienta, han reflexionado Imanol Basterretxea, Jon Charterina y Jon Landeta, profesores de Instituto de Economía Aplicada a la Empresa de la UPV/EHU.

Lehiatzea eta berritzea dira, antza, gure garaiko enpresentzako bizitza-gida saihetsezinak. Horiekin batera, beste termino bat, itxuraz kontraesankorra dena, indarra hartzen ari da egungo enpresaren hiztegian: koopetitu, hau da, lehiakideekin lankidetzan aritzea lehiakortasunean irabazteko, adibidez, berrikuntza-prozesu eraginkorragoen eta handinahien bidez. Egin-eginean ere, gero eta adibide gehiago ditugu automobilgintza, teknologia, nekazaritza, eraikuntza edo berriztapen arloko enpresen artean edo hirien artean. Enpresa horiek elkarren artean lehiatzen dira eta, aldi berean, elkarlanean aritzen dira, oreka delikatu eta arriskutsu batean, eta batzuek joera horri “otsoekin dantzan” izena jarri diote. Harreman horren analisiak konponbide zaileko galdera asko zabaltzen ditu: zeri buruz koopetiza daiteke? Nola gauzatzen da koopetizio hori? Nola saihesten dira jokabide oportunisten arriskuak?

Duela gutxi argitaratutako lan akademiko batean (*) galdera horiei erantzuten saiatzen gara, makina-erremintaren sektoreko euskal enpresa kooperatiboek, elkarren lehiakide izanik, berrikuntza- eta nazioartekotze-prozesuetan abantailak lortzeko elkarrekin nola lan egiten duten aztertuz. Enpresa horiek, kooperatiba-izaera dutenez, beren ingurukoek baino lankidetza-bokazio eta -tradizio handiagoa dute, eta koopetizazioan bide luzeagoa egin dute; hala, haien ikaskuntzak beste enpresa eta sektore batzuentzat baliagarriak izan daitezke.

Ildo horretan, enpresek, bereziki ETEek, koopetizaziotik lor ditzaketen onura nagusiak honako hauetara bideratuta daude: kostuak eta arriskuak partekatzera, eskaera edo proiektu handien aurrean erantzuteko gaitasuna handitzera, kostuak murriztea ahalbidetzen duten eskala-ekonomiak lortzera, ezagutzak eta behar dituzten beste baliabide batzuk eskuratzera, eta beren ingurune hurbilarekiko negoziazio- eta presio-indarra handitzera (bezeroak, hornitzaileak, administrazioa).

Aztertutako euskal enpresen kasuan, koopetizioa honako arloetan izaten da gehienbat: I+G arloetan (I+G unitate partekatuak, proiektuak eta aurrekontuak, I+G talde bateratuak eta teknikarien eta zuzendarien aldizkako deslokalizazioak), erosketetan (gehienak baterako erosketak, hornitzaileekiko negoziazio-boterea handitzeko eta prezio hobeak lortzeko) eta nazioartekotze-prozesuan (gorabideko merkatuetan baterako merkataritza-bulegoak izateko eta, hala, tamaina-mugak gainditzeko eta gero eta merkaturik urrunenetan erabiltzaileak lortzeko). Gainera, guztiek laguntzen dute beren elkarte sektorialari eusten eta babesa ematen (Makina-erreminten Fabrikatzaileen Espainiako Elkartea, AFM), oso aktiboa baita beren interes komunak kanpora begira defendatzerakoan.

Competir e innovar son los dos términos que parecen ser las guías ineludibles de vida para las empresas de nuestra época. Junto con estos, otro término, aparentemente contradictorio, está ganando fuerza en el vocabulario de la empresa actual: coopetir, es decir, colaborar con competidores para ganar en competitividad, a través, por ejemplo, de procesos de innovación más eficientes y ambiciosos. En efecto, cada vez son más los ejemplos de empresas automovilísticas, tecnológicas, agrícolas, constructoras, restauradoras o, incluso, ciudades, que compiten y, a la vez, colaboran entre sí, en un delicado y peligroso equilibrio, que hay quien ha bautizado como “danzando con lobos”. El análisis de esta relación abre muchas preguntas de difícil resolución: ¿Sobre qué se puede coopetir? ¿Cómo se materializa esta coopetición? ¿Cómo se evitan los riesgos de los comportamientos oportunistas?

En un trabajo académico publicado recientemente (*) intentamos dar respuesta a estas preguntas a partir del análisis de cómo las empresas cooperativas vascas del sector de la Máquina-Herramienta, competidoras entre sí, colaboran conjuntamente para conseguir ventajas en sus procesos de innovación e internacionalización. Estas empresas, por su naturaleza cooperativa, exhiben una vocación y tradición colaborativa superior a la de su entorno, y han recorrido un mayor camino en la coopetición, de forma que sus aprendizajes pueden ser de valor para otras empresas y sectores.

En este sentido, los principales beneficios que las empresas, especialmente las pymes, pueden obtener de la coopetición están orientados a compartir costes y riesgos, aumentar la capacidad de respuesta ante grandes pedidos o proyectos, alcanzar economías de escala que permitan reducir costes, obtener acceso a conocimientos y a otros recursos que necesitan, e incrementar su fuerza de negociación y presión ante su entorno próximo (clientes, proveedores, administración).

En el caso de las empresas vascas analizadas, la coopetición tiene lugar principalmente en las áreas de I+D (unidades de I+D compartidas, proyectos y presupuestos, equipos conjuntos de I+D y deslocalizaciones periódicas de técnicos y directivos), en las compras (en su mayoría, compras conjuntas, para incrementar el poder de negociación con proveedores y beneficiarse de mejores precios) y en el proceso de internacionalización (oficinas comerciales conjuntas en mercados emergentes, para superar sus limitaciones de tamaño y tener acceso a los usuarios en mercados cada vez más lejanos). Además, todas ellas colaboran sosteniendo y apoyando su asociación sectorial (Asociación Española de Fabricantes de Máquinas-herramienta, AFM), muy activa en la defensa frente al exterior de sus intereses comunes.



Koopetizio-prozesuak beren lehia-gaitasuna hobetzeko beharrak eta interesak gidatzen dituzte.  Hau da, enpresa bakoitzak argi du koopetizaziotik zer espero duen lortzea. Hortik aurrera, zuhurtziaz jokatuta ere, konfiantza eskuratuz doa arian-arian koopetidoreen artean. Oro har, prozesua lehiatzaileen artean beren interes komunei buruzko elkarrizketekin hasten da. Elkarrizketa horiek, azkenean, lankidetza-akordioetan gauzatzen dira, helburu partekatu argiekin, erantzukizun zehatzekin eta aurrez finkatutako zuzenketa-mekanismoekin. Akordio horiek elkarren intereseko taldeetarantz eboluziona dezakete, eta bigarren mailako kooperatiben moduan formalizatu daitezke (hau da, kooperatiben bidez eratutako kooperatiben bidez) eta, azken buruan, kooperatiben bat-egiteetan.

Supraerakunde baten laguntza eta lidergoa, hala nola Mondragon Korporazioa eta, neurri txikiagoan, AFM, lehiatzeko moduetan eta inplikatutako erakundeetan dauden balio nagusietan dagoen hurbiltasunarekin batera, koopetizioa errazten eta ahalbidetzen duten elementuak dira.

Zuhurtasuna, bestalde, portaera oportunisten arriskua murrizteko neurri gisa gauzatzen da:  produktuak edo merkatuak aldez aurretik birbanatzea, bezeroarengandik urrun dauden balio-kateko faseetako jardueretan laguntzea, arrisku txikiko proiektuetatik hastea edo balioak, onurak eta arriskuak partekatzen dituzten taldeetan integratzea.

Aztertutako kooperatiba batzuk gai izan dira, halaber, kooperatibak ez diren beste enpresa batzuekin koopetizio-esperientzia erreplikatzeko.  Kasu horietan, lankidetza, neurri batean, lehia zuzenaren kontura lortu da, eta produktuak edo merkatuak birbanatzeko neurriak hartu dira, lehia zuzena eta portaera oportunistaren aukerak saihesteko.

Laburbilduz, aztertutako euskal enpresa horien esperientziak lagungarriak izan daitezke koopetitu nahi edo behar duten beste enpresa batzuentzat, bai eta koopetizioa sustatzen saiatzen diren elkarte sektorialentzat eta erakunde publikoentzat ere, beharrezkoa baina, aldi berean, zaila den enpresa-estrategia hori praktikan gauzatzeko.

(*) Basterretxea, I., Charterina, J. and Landeta, J. (2019) Coopetition and innovation. Lessons from worker cooperatives in the Spanish machine tool industry. Journal of Business & Industrial Marketing

www.emerald.com/insight/content/doi/10.1108/JBIM-01-2018-0015/full/html

Open Acces: https://lnkd.in/gyxwKJg

Sus procesos de coopetición están guiados por la necesidad y por el interés en mejorar su propia capacidad competitiva. Es decir, cada empresa tiene claro qué espera obtener de la coopetición. A partir de ahí, se produce una adquisición paulatina de confianza, no exenta de precaución, entre los coopetidores. Generalmente, el proceso se inicia con conversaciones entre competidores sobre sus intereses comunes, que terminan materializándose en acuerdos de colaboración, con objetivos compartidos claros, responsabilidades definidas y mecanismos de corrección prefijados. Estos acuerdos pueden evolucionar hacia grupos de interés mutuo, y pueden llegar a formalizarse en forma de cooperativas de segundo nivel (es decir, cooperativas constituidas a partir de cooperativas) y, en última instancia, en fusiones de cooperativas.

El apoyo y liderazgo de una supraorganización, como es el caso de Corporación Mondragón y, en menor medida, de la AFM, junto con la proximidad en los modos de competir y en los valores dominantes existentes en las organizaciones implicadas, son elementos que facilitan y propician, a su vez, la coopetición.

La precaución, por su parte, se materializa en forma de medidas para disminuir el riesgo de comportamientos oportunistas: redistribución previa de productos o mercados, coopetir en actividades en fases de la cadena de valor alejadas del cliente, empezar por proyectos de bajo riesgo o integrarse en grupos que compartan valores, beneficios y riesgos.

Algunas cooperativas analizadas han sido también capaces de replicar la experiencia de coopetición con otras empresas no cooperativas. En estos casos, la cooperación se ha conseguido en parte a expensas de la competición directa, tomando medidas de redistribución de productos o mercados que eviten la competición directa y las posibilidades de comportamiento oportunista.

En suma, las experiencias de estas empresas vascas analizadas pueden ayudar a otras empresas que buscan o necesitan coopetir, y a las asociaciones sectoriales y los organismos públicos que intentan promover la coopetición, a materializar en la práctica esta necesaria, pero complicada, estrategia empresarial.

(*) Basterretxea, I., Charterina, J. and Landeta, J. (2019) Coopetition and innovation. Lessons from worker cooperatives in the Spanish machine tool industry. Journal of Business & Industrial Marketing

www.emerald.com/insight/content/doi/10.1108/JBIM-01-2018-0015/full/html

Open Acces: https://lnkd.in/gyxwKJg

Ekonomia Sustatzeko Sailak ETEen eta pertsona ekintzaileen eskura jartzen dituen zazpi laguntza-programen kudeaketan laguntzen du BEAZek. 2018an 640 eskaera baino gehiago jaso ziren, eta 417 onartu ziren. Bi irizpideren arabera nabarmendutako proiektu eta enpresak (jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen laguntzea) dira aurtengo ON Bizkaia sariak aitortzen dituztenak.

---

Beaz colabora en la gestión de siete de los programas de ayudas que el Departamento de Promoción Económica pone a disposición de pymes y personas emprendedoras. En 2018 se recibieron más de 640 solicitudes, 417 fueron aprobadas. Los proyectos y empresas más destacados según dos criterios –contribución a la generación de actividad económica y empleo– son los que reconocen los premios ON Bizkaia de este año.

---

GUIVISA

**BERRIKUNTZA PROIEKTU SARIA**

1949an sortu zen Guivisa, eta altzairu moldekatuaren galdaketan garatzen du bere jarduera nagusia. Enpresa gisa, gaitasun eta malgutasun produktibo handiagatik nabarmentzen da. Bere historian ohikoak dira produktu eta merkatuen aldaketak eta txandakatzea. Bere *know how*-ak lagunduta, enpresak egokitzen eta berrikuntza-prozesuak txertatzen jakin du. Horixe da haren azken proiektuaren kasua. 2010eko krisien ondoren, Guivisa 4.0 industriara bideratu da. Orduan, galdaketaren sektorean teknologia berritzailea ezartzea erabaki zuen, kostuak eta denborak nabarmen murriztea ahalbidetuz; horrek, gainera, berekin ekarri zuen enpresak hazkunde- eta espezializazio-estrategia berri bat abiaraztea.

**PREMIO PROYECTO DE INNOVACIÓN**

Fundada en 1949, Guivisa desarrolla su principal actividad en la fundición de acero moldeado. Como empresa destaca por una gran capacidad y flexibilidad productiva. En su historia son frecuentes los cambios y la rotación de productos y mercados. Respaldada por su *know how*, la empresa ha sabido adaptarse e incorporar procesos de innovación. Es el caso de su último proyecto. Tras las crisis de 2010, Guivisa opta por orientarse hacia la industria 4.0. Decide entonces implantar una tecnología innovadora en el sector de la fundición que permite recortar costes y tiempos de manera significativa y que ha llevado a la empresa a lanzar una estrategia nueva de crecimiento y especialización.

---

ZUNIBAL
Technology moved by the ocean

**NAZIOARTEKOTZE PROIEKTU SARIA**

Zunibalek produktu eta zerbitzu elektronikoak garatzen ditu itsas sektorean aplikatzeko. Arrantzari aplikatutako komunikazio satelitalak erabiltzen aitzindariak dira, eta I+G+b sail garrantzitsu bat dute, bezeroen beharretara eta merkatura egokitutako soluzio teknologikoak garatzen lan egiten duena. Atuna arrantzatzeko lehen buia satelitaletatik olatuak neurtzeko azkenetara, Bizkaian jaiotako enpresa honen historia munduko arrantza- eta itsas sektorearekin paraleloan doa. Planetaren mutur batetik bestera, Japoniatik Panamara, arrantzan garrantzia duten herrialde guztietan du presentzia Zunibalek, eta bere ekoizpenaren %80 esportatzen du. Nazioartekotzea da haren hazkundearen gakoa.

**PREMIO PROYECTO DE INTERNACIONALIZACIÓN**

Zunibal desarrolla productos y servicios electrónicos para su aplicación en el sector marino. Pioneros en la utilización de las comunicaciones satelitales aplicadas a la pesca, disponen de un importante departamento de I+D+i que trabaja en el desarrollo de soluciones tecnológicas, adaptadas a las necesidades de sus clientes y al mercado. De las primeras boyas satelitales para pesca de atún a las últimas para la medición del oleaje, la historia de esta empresa nacida en Bizkaia corre en paralelo a la del sector pesquero y marino en el mundo. De un extremo a otro del planeta, de Japón a Panamá, Zunibal tiene presencia en todos los países con relevancia en pesca y exporta el 80% de su producción. La internacionalización es la clave de su crecimiento.

**ENPRESEN SORKUNTZA PROIEKTU SARIA**
Comalaetxea euskal software garatzaileen talentua ilustratzen duen startup bat da. Halaber, ingurune lehiakorra gara mundu mailan, Kanadako enpresa batek bere I+G unitatea Bilbon irekitzea erabaki dezan bezainbeste. Kanadako Comalatech da, Atlassian plataformaren gainean lan egiten duen erreferentziazko enpresetako bat. Bizkaikoa Comalaetxea da. 2018an sortua, gaur egun 17 profesionalek osatzen dute enpresa, Comalatech abangoardian mantentzea ahalbidetzen duten produktu teknologiko berritzaileak garatuz.

**PREMIO PROYECTO DE CREACIÓN DE EMPRESAS**
Comalaetxea es una startup que ilustra el talento de los desarrolladores de software vascos. También que somos un entorno competitivo a nivel global, tanto como para que una empresa de Canadá decida abrir en Bilbao su unidad de I+D. La canadiense es Comalatech, una de las empresas referentes que trabaja sobre la plataforma Atlassian. La vizcaína es Comalaetxea. Creada en 2018, actualmente forman parte de la empresa 17 profesionales que desarrollan productos tecnológicos innovadores que permiten a Comalatech mantenerse en la vanguardia.

**BIZKAIA SORTZAILEA PROIEKTU SARIA**
